

# DROGETEN

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 216. zkia. 2013ko urria

IRTIURRA



## Azaroaren 9an

arrantzaka, beeka, murrusaka, irrintzika...

## San Martin azokara



**IRAZABAL**  
clínica dental

**Antonio Murillo doktorea**

PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA

**Ainhoa Zulueta doktorea**

ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA

**Susana Sierra doktorea**

ORTODONTZIA, OKLUSIOA

**Maitane G. Iñiguez doktorea**

ODONTOLOGIA OROKORRA, ODONTOPIEDIATRIA

ORDUTEGIA

Asteleheneretik ostegunera

**08.00 - 22.00**



Zapatuetan

**10.00 - 14.00**

**IRAZABAL HORTZ-KLINIKA**

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52

[www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com) - [info@clinicairazabal.com](mailto:info@clinicairazabal.com)



**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50.  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Igone Amesti, Ibaia  
Azagirre, Leire Elustondo,  
Estibalitz González,  
Ane Saéñz eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Estibalitz González  
eta Dorleta Vidal.

**LAGUNTZAILEAK:**

Amaia Arriaga,  
Antonio Hernández 'Cuco',  
Fede Iturriagagoitia,  
Patxi López, Pello Mugarza,  
Valentín Mugarza eta  
Ainara Riveras.

**ARGAZKIAK:**

Igone Amesti, APFE,  
Ibaia Azagirre, Miguel Ángel  
Caballero, Leire Elustondo,  
Estibalitz González,  
Aitor Hernández,  
Valentín Mugarza,  
Carmelo Oyarzabal,  
Alex Solozabal, Ermuko  
Udala eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

688 63 28 76.

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Ainitze Antxia, Nora Mateos  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.380 ale.

**ISSN:**

11 33-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-215/94.

*Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

## TXIRTIA *Escribano cerillo* *Emberiza citrinella*



Hori bizi-bizikoa da arraren lumajea; nabarra eta kolorega emearena. Hazijale guztiek bezala, moko gogorra du, hazion oskola errazago hausteko. Habia behe xamar egiten du, zuhaixkaren baten azpian edo bide bazterren batean. Ermuan baino, haren baten errazago bistaratuko da Mallabia aldean: Hanbre inguruko zein Trabakutik Berrizera bitarteko ota, larra eta landak maite ditu bizenoki eta kumatze-leku bezala. Emea arduratuko da habia atontzeaz eta kumaldiko hiru, lau... sei arrautzak berotzeaz; arrak, ostera, dagokion aitatasuna martxan ipiniko du arrautza dozena erditxoak kraskatu eta txitatxoak jaiotzen direnean, etxeko aldra berriarentzat janaria jiratzen lagunduz.

## Hilabete honetan...

### MUNDUKO AHOTSAK...4

Aida Estrada

### ELKARRIZKETA .....5-7

Alex Solozabal

### MALLABIAN ZER? .....8-9

Urriko jaiak

### ERREPORTAJEA .....10-11

Learreta eta Marquina, bikote ongilea

### XXIV. SAN MARTIN ..12-13

Azoka eguna eta San Martin kulturala

### MOTZEAN.....14-15

'Aitor Hernández Team' sortu da

### ERMUAN ZER? .....16

Berbalagunen edizio berria

### BOTEPRONTOAN .....17

Maite Moreno

### IRITZIA .....18

Bat garelako azken batean...

### SALEROSKETAK .....19

Saldu, erosi edo agurtu

### ANTZINAKOAK.....20

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

### KALEKO INKESTA .....21

Ordu aldaketa

### AGENDA .....22

Azaroko agenda

## Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística



## Aida Estrada

**Duela 12 urte heldu zen Aida Kolonbiatik, 26 urte zituela. Irakasle izateko ikasten ziharduen eta eskola batean klaseak ematen zituen. Bi alaba ditu eta denda batean egiten du lana.**

**- Azaroaren 26an 12 urte beteko dira etorri zinenetik. Ondo gogoratzen duzu data hura?**

Bai, oso gogoan dut. Nire bizitza la- ga nuen Kolonbian, familia osoa. Gabon- nak gertu zeuden eta 6 urteko alaba- txoarekin ni hona etortzea oso gogorra izan zen nire gurasoentzat. Hiru ahizpa eta neba ere han ditut.

**- Zer dela eta etorri zinen?**

Maitasunak ekarri ninduen, nire ala- ben aita ni baino 8 hilabete lehenago etorri baitzen. Ez nuke esango diruaga- tik etorri ginela, guretzako etorkizun- hobea topatu nahiak ekarri gintuen. Hemen beste alaba bat izan eta handik urte batzuetara senarrak eta biok ba- natzea erabaki genuen. Orain 3 gara -Luisa, Maialen eta ni-, bizitzan aurre- ra egin nahi duten hiru emakume.

**- Bazenekien nora zentozen?**

Ni Espainiara nentorren, Europara, eta orain Euskal Herrian bizi naizela ulertu dut. Dagoeneko ermuarra naiz, Kolonbiakoa baino hemengoagoa senti- tzen naiz-eta.

**- Nola lortu zenuen hemen bidea egi- tea?**

Alaba izateak ate asko zabaldu zizki- dan, bestela seguruenik bakartu egingo



nintzen. Bestalde, Udaleko Zerbitzu So- zialetako Ainhoa Larrañagak Caritasen lana egiten zuen Maite Fernandezi deitu eta hark egin beharrekoa agindu zigun: umea eskolara joan, erroldatu... Eta la- na ere lortu zidan, etxe bat garbitzen. Nire onenak ematen nituen, baina Kolon- bian nuenaren falta sentitzen nuen.

**- Etxearen jabeak baina, bere den- dan lan egiteko eskaintza egin zizun handik gutxira, ezta?**

Bai, eta nik poz-pezik onartu ere! Orduan hasi nintzen 'Idoia' dendan la- nean eta lau urte beranduago paperak lortu eta Kolonbiara bisitan joateko au- kera izan nuen. Askok zor diot Idoia Goi- koetxeari.

**- Eta nola hartu zintuen herriko jen- deak?**

Oso-oso ondo eta eskertzeko asko daukat gainera. Egoera izugarri latzak bizi izan ditut hemen eta bai Udaleko langileak bai herriko jendea alboan izan dut beti.

**- Gaur egun zoriontsu zara?**

Bai, asko. Gau eta egun egin behar dut lana familia aurrera ateratzeko, dendan egoteaz gain, garbiketarako egin eta azazkalak apaintzen ditudalako, baina ez daukat zorrik, alabak ondo daude, lagunak ditut...

**- Eta euskara ikasteko tartetxorik aterako duzu?**

Hori da egiteke daukadana, baina denbora falta dut. Egia esan, ulertu ia dena ulertzen dut, hitz egiten hastea falta zait.

Dorleta Vidal

**OKINDEGIA  
GOZOTEGIA**

**IZELAIETA, 40** Tel. 17 00 63  
**ZUBIAURRE, 12** Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**

**Garraioak, S.L.**

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**IKASTOLA**

1968tik Ermua euskalduntzen



Alex Solozabal, Munduko Zesta Txapelduna 1963 eta 1966 urteetan:

## **“1.963 partidu jokatu ditut, guztiak irabazteko esperantzarekin”**

Ermuan jaio zen Alejandro Solozabal duela 77 urte eta badira 50 urte zestako munduko lehen txapela lortu zuenetik. Bost anaien artean bera da gazteena eta besteek bezala, ia umetatik ekin zion kirolari. Ermuko frontoian jokatzen zuen hasieran, Miguelito Altuna, Juanito Okariz eta Alberto Elejalde lagunekin eta Kuban, Mexikon eta Miamin aritu eta gero, Munduko txapela eskuratu zuen birritan Durangon, 1963ko urrian eta 1966ko azaroan.

**- Noiz lortu zenuen Munduko Txapela?**

Bi bider irabazi dut, 1963ko urriaren 13an eta 1966ko azaroaren 20an, biak Durangon, kasualitatez. Lehenengo partidaren emaitza hauxe izan zen: Ondarrés - Larrañaga 31 / Alex - Txikuri 35. Bigarren txapelaren emaitza izan zen honakoa: Alonso - Larrañaga 22 / Alex - Elicegui 35. Garaikurra eman ziguten, garai hartan ez baitzen txapelik ematen.

**- Irabaztea espero zenuen?**

Espero... beti! Esperantza ez da galtzen!

**- Nolako zinen jokalaria moduan?**

Ez nuen indar asko, baina teknika, nerbio eta hanka onak nituen. Zestan ondo jokatzeko, besoetan beste indar behar da hanketan. 'La gacela de Ermua' deitzen zidaten, oso bizkorra nintzelako.

**- Hori zen zure gaitzizena?**

Hemen bai. Atzerrian, berriz, 'Solozabal' nintzen, Miamin jokatu arte. Miami-koentzako 'Solozabal' oso luzea omen zen eta 'Alex' ipini zidaten.

**- Asko zaindu behar zinen?**

Bai, beti zaindu naiz. Jatekoan ez, esaterako, zetorrena jaten nuen. Egia esan, ez nuen asko jaten eta orain ere gutxi jaten dut, baina dene-tik. Parranda dezente ere egiten nituen... Tira, beharbada ez nintzen asko zaintzen...!

**- Zer dela eta hasi zinen zestan?**

Osaba batek Txinan jokatzen zuen zestan eta hark oparitu zidan nire lehen zesta. Ermuko frontoian hasi nintzen orduan jokatzen, 8 urte inguru nituela. Bost anaien artean gazteena naiz eta ordurako bi anai nituen zestan jokatzen eta beste bat palista Madrilan.

**- Euren urratsak jarraitu zenituen, orduan?**


Garai horietan afizio modoa zegoen eta nik ere ekin nion. Ermuan apur bat ikasi eta gero, 12 urterekin-edo, Markinako frontoian entrenatzen hasi nintzen. Bertan frontoi handia zegoen, itxia eta errebotearekin.

**- Zenbat urterekin egin zinen profesional?**

16 urterekin joan nintzen A Coruñaara profesional moduan eta handik Zaragozara. Han urtebete jokatu nuen eta 18 urte egiteko nituenean Habanara eraman ninduten.

**- Nork eraman zintuen, bada?**

Ikuskatzaile batek. Bertatik etorri zen eta joateko prest nengoen galdetu zidan. Aitak baietz esan eta pentsa, ni poz-pozik! 1955eko abuztuaren 4an debutatu nuen Kuban. Bertan laguna nuen kazetari batek koadernoan oparitu zidan eta ordutik partida guzti-guztiak apuntatuta ditut: datak, le-



kuak, emaitzak... Nire debutean irabazi egin nuen: Vergara - Retolaza 15 / Solozabal - Millán 25. Hasiera ona izan nuen!

**- Nola bizi zineten Kuban?**

Ederto! Lau joan ginen hemendik eta hotel batean bizi ginen. Entrenatu eta astean partida bi izaten genituen, ostegunetan eta larunbat edo domeketan. Hilean 8 partida izaten genituen guztira. Denbora librean hondartzara joaten ginen, parranda apur bat... Oso giro ona zegoen gure artean!

**- Euskaldun bakarrak zintzen bertan?**

Ez, 20 edo 25 zestalari euskaldun ginen. Gutaz aparte, Mexiko eta Kubako

gutxi batzuk zeuden. Miamin, berriz, denak kanpo-koak ginen.

**- Eta, hala ere, afizio handia zegoen Miamin?**

Bai, frontoiak jendez lepo egoten ziren. 10.000 lagun sartzen ziren frontoi batzuetan eta topera betetzen ziren!

**- Habanaz gain, Miamin ere jokatu izan duzu beraz...**

Bai. Habanatik Mexikora joan nintzen hilabete birako, baina aurretik baneukan sinatuta kontratua Miamira 4 hilabetetarako joateko. Handik Habanara beste 6 hilabete, Miami, Habana, Miami, Durango, Miami... urte erdi inguru egiten nuen leku bakoitzean, kirol den-

**"18 urte betetzeko nituenean ikuskatzaile batek Habanara eraman ninduen. Ederto bizi nintzen bertan!"**



Drogeteniturrri, 216 zkia.



boraldiak zirela-eta. Diru asko egin nuen garai hartan.

- *Non ibili zinen gusturen?*

Habanan: oso ondo bizi ginen! Gainera bertan ezkondu nintzen, 25 urterekin, Fidel Castrok agintea hartu eta gutxira. Emaztea eta biok bannandu egin ginen urte batzuk beranduago baina bi seme-alaba ditugu, Miamin bizi direnak eta duela gutxi bi hilabete igaro ditut bertan erekin. Lau iloba ditut baita ere eta nagusienak 25 urte ditu jada!



## “Pena handiarekin erretiratu nintzen, 47 edo 48 urte nituenean. Bajatuta nengoen jada, azkenetan”

- *Lehen aipatu duzun koarderno horretan, zenbat partida jokatu dituzun apuntatuta duzu?*

Bai. 1.963 partida jokatu ditut, horietatik 1.063 irabazi eta 900 galdu.

- *Eta zenbat urterekin erretiratu zinen?*

47 edo 48 urterekin erretiratu nintzen, Durangon. Bajatuta nengoen jada, azkenetan. Pena handiarekin utzi nuen eta horren pena izan dut beti. Horrenbeste urte jokatzeko egon eta gero... Horren ostean Gasteizen ibili nintzen tailer batean lanean anaiarekin batera.

- *Zer eman dizu zestak?*

Nire bizimodua izan da eta jende asko ezagutzeko aukera eman dit, leku guztietan. Frontoira jende asko etortzen zen eta partidua bukatutakoan niregana etortzen ziren denak, ni zoriontzera.

- *Zure jolaskideak izan zirenekin harremana duzu oraindik?*

Bai, Markinako ‘Txino’ Bengoa, Zarandona eta Gisa-

sola esaterako, sarri ikusten ditut. Miamin, Txutxo Larrañaga, Orbea eta Tximela ditut eta, bertara joaten naizen bakoitzean, eurekin egon eta paella eder bat egiten diet. Ia urtero joaten naiz bertara edo, asko jota, bi urtetik behin.

- *Senideren batek eutsi dio kirolean aritzeko ohiturari?*

Bai, anai baten semeak Miamin jokatzeko du gaur egun, zestaz.

- *Eta orain pilotazalea zara?*

Bai, telebistan ikusten ditut partidak. Frontoietara gutxitan joaten naiz, omenaldi bat eta ongintzako partidak egiten direnean baino ez.

- *Zein pilotari duzu gustuko?*

Eskupilotan Titin asko gustatzen zitzaidan, baina orain ez dabil ondo. Olaizola II.a eta Irujo gustatzen zaizkit; atzean Merino II.a, esaterako. Zestean, berriz, ez dakit ezta nortzuk jokatzeko duten gaur egun. Pena da, baina zegoen afizio guztia galdu egin da!

Dorleta Vidal

## AMAIA HARATEGIA



**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

## SEHIGA



**LAN-BABESA**

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454 / Fax: 943 033 821  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Iberikoetan  
espezialistak

*Mayte*


Denda berria

VI Centenario 5  
943 172 412  
ERMUA

## Arinka zapata-denda

- Jose Saenz  
- Primigi  
- Timberland  
- Geox  
- Gorila  
- Converse...

Umeak  
Gazteak  
Emakumeak



**VI Centenario 17 - Ermua**  
**943 17 41 26**

## EMAKUMEEI ZUZENDUTEKO IKASTARUE

Mallabiko Udalak, III. Berdintasun Planan barruen emakumei zuzendutako 'Gatazka: bitartekotza eta eraldaketa' ikastarue antolatu dau. Ikastaro honen helburue esparru ezberdinetako gatazkek aztertu eta hauei aurre eittie da. Ikastarue urrixan 15ien hasi zan. Hurrengo egunek ondorenguek die: urriak 29, azaroak 5, 12, 22 eta 29. Ordutegixe 14:30etatik 15:45era Kultur Etxeko aretuen.

## ORTUETAKO AZKEN LANAK

Mallabiko ortu ludikuetako esparrue egokitzeko lanekin hasi die brigadako langiliek. Etxola inguruen euri ur gehiago jasotzeko ur-bidoi gehiago jartziai gain, ortuetarako bidia porlana botako dotzie, instalaziñuetako sarrerie hobetzeko. Behin honek eindde, Udalak ortuek martxan jartzeko aurreikusten zittun egin beharreko eta lanak amaitutzak emongo dittu.

## HERRIKOAREN 20. URTEURRENA



Azaroan 2 eta 3rako Izar Gorri eta Herriko Tabernak hainbat ekintza ezberdin antolatu dittue Herrikuan 20. urteurrena ospatzeko.

Azaroan 2xen, 16:30ak aldera, oraindik zehaztu barik dauen umientzako pelikula eta, honen ostien, nagusientzako laburmetrai bat ikusteko

aukera egongo da. Gabien, barriz, 22:00etan, Trikiizio taldiek kontzertue emongo dau Herriko Tabernan. Sarrerie debalde izengo da.

Azaroan 3en, goizetik triki-poteue eta bazkidientzako bazkarixe antolatu dabe. Bazkal osterako, ordie, 16:30etatik aurrera Beñat Ugartetxea eta Arkaitz Estiballes bertsolariexek bertsoan eta txiste kontatzie egongo da, publiko guztixandako zabalik.

20. urteurrena dala eta, Izar Gorri Elkartiek Mallabiko bideo, argazki eta kantuz osatutako CD bat kaleratu dau. Aipatzekue da, kantuan letrie Eneko Ostolaza presuek ein dabela, musikatzie, barriz, Trikiizio taldiek ein dau Betagarri taldeko Iñaki Ortiz de Villaba eta Hesian taldeko Zuriñe Hidalgo abeslarixen kolaborazinuz.

CD hau 5eurogaittik erosi leike Mallabiko Herriko eta Bastida Tabernetan; Ermuen Infreñu eta Txalapartan eta Eibarren Deportivo eta Karrika Tabernetan. Aipatu, bertatik atarako dirue herrikuan epaiketako gastuek kubritzeko izengo dala.

## GARRAIO ERABILTZAILEEN IRITZIAK JASOTZEKO PROZESUE MARTXAN

Gipuzkoako Foru Aldundiak garraio erabiltzaileen iritzixek jasotzeko prozesue jarri dau martxan. Mallabi eta Ermuko erabiltzailientzako batzarra Eibarren ein zan urrixan 22xen. Bertaratutekuek, Mallabia-Ondarru linean inguruko hobekuntzak proposatu, iritzixe emon edo beste edozein eskiera itteko aukerie auki eben.

Honetaz gain, herritarrek Mallabiko udaletxe edo kultur etxien inkesta bat bete ahal dabe; Udala arduratuko da berauek Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun departamenture bidaltziai. Inkesta hori internetez be bete leike [www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net) helbidien.

## SANTA ZEZILIA ETA GAZTAÑERRE EGUNE

Azaroan 23en, iluntziko 20:00tan ospatuko da Mallabin Santa Zezilia eta Gaztañerre egune. Mallabiko elizan Adolfo Jainaga trikitilarixen ikasliek, Jasokunde eta Mendibil abesbatzez gain, elizako organuan 100. urteurrena dala eta, Maritxu Roteta bakarlarixek hiru abesti abestuko dittu Zumaiko Santiago Banda, 33 urteko organista gaztiakin batera. Honetaz gain, Ibaia Azagirre eta Igone Amestiek martxan jarri daben 'Gozatu! Dantza eta Kantu!' proiektuak esker sortu dan gazte talde abeslarixek be euren lehen agerraldixe eittie espero da.

Kontzertuan ostien, azkenengo urtietan ein dan moduen, Orraittio Euskara Elkartiai esker elizpian gaztañerre jana egongo da.

## MALLABIA-OSMA ERREPIDEKO OBRAK

Aspaldi hasitteko Mallabi-Osma errepideko lanak urria edo azaroa hasieran amaitzie aurreikusten da, beti be eguraldixek laguntzen badau. Udalak adierazi dauenez, lanak atzeratu ein die proiektuen aurreikusten ez zien aldaketa batzuk egon dielako; errepideko puntu batzuk zabaldu ein die. Honetaz gain, Udalak behin eta berriz Bizkaiko Foru Aldundiari errepide zati honentzako oinezkuentzako pasabidie eskatu dotzela azaltzen dau, baina zoritzarrez oinezkuek ez dittuela kontuen hartu azaltzen dau.

## MALLABITARRAK GMGZ ZIRKUITUEN

Itsaso Pradera aurrelarixe eta Amaia Araiztegi atzelarixe GMGZ-k antolatutako txapelketak jokatzen dabiz. Guztire 4 aurrelari eta 4 atzelari izen die aukeratuek. Gomazko pilota zirkuitu hau Gasteiz, Getxo, Iruña eta Donostian jokatzen ari da. Herri hauetako sailkapenen araberrakue izengo da Sopelanan abenduan batién jokatuko dan finala.

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre



- \* Burdindegia
- \* Tresneria
- \* Sarrailagintza
- \* Giltzak / Aginte automatikoak
- \* Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- \* Opari artikuluak

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer\_anboto@hotmail.com  
[www.ferreteriaanboto.es](http://www.ferreteriaanboto.es)



**MALLABIKO Herriko taberna**

Eguneko platera (3€),  
 menua bokatak,  
 plater konbinatuak,  
 pintxoak, kazolak,  
 arraina eta txuleta  
 parrillan (enkarguz)...

**943 174 952**  
 (asteartetan itxita)



# Urriko jaiak

## URRIAK 25, OSTIRALA

16:30 Umeentzako TAILERRAK plazan (Antolatzaile: Guraso Elkarte).  
Ondoren BURUHANDIXEN irteera udaletxetik.

18:00 TXUPINAZUE Izar Gorri Elkartian eskutik eta ENKARTELADIE.

19:00 Elizpeko pilota txapelketan finala.

20:00 OILASKO PINTXUEK plazan. Tiketak: 1,50 euro. Ondoren TRIKI-BERTSO POTEUE Gorka Maiz eta Beñat Iguaran bertsolarixekin eta Bizkai eta Mendotz trikitilarixekin.

20:30 EH-ko NAN jaurtiketa txapelketa nagusixe plazan.

22:30 EROMEN taldekin erromerixie plazan.

02:00 KARAOKIE Herriko tabernan.

## URRIAK 26, LARUNBATA

10:00 FUTBITO TXIKI eskolan: Mallabia-Zaldibar (Antolatzailea: AD Mallabia FT).

12:00 FRONTENIS txapelketaren finalaurrekuek herriko frontoien. (Antolatzailea: A.D. Mallabia FT).

16:00 ZINIE Kultur Etxien. (Antolatzailea: AD Mallabia FT).

18:30 FRONTENIS txapelketaren finalak herriko frontoian. (Antolatzailea: AD Mallabia FT).

19:00 BURUHANDIXEK plazan hasitte.

20:00 TOKA txapelketa ume eta helduentzat plazan. Izen emotie euro bat eta umiek dohainik.

22:00 ROCK KONTZERTUA parkien: Seurte, Gatibu, Vendetta eta eMePebo5t.

## URRIAK 27, IGANDEA

12:00 Gaztetxuen arteko PILOTA PARTIDUEK (Antolatzailea: Mallabia I pilota eskola).

16:30 Mus, Tute eta Briska txapelketa tabernetan. Izena emotie: 5 euro bikoteko. Sarixek: Txapeldunak, 60 euro; txapel-dun-ordea, 30 euro.

16:30 IPUIN KONTALARIXE ludotekan.

17:30 TXOKOLATADIE plazan (Antolatzailea: Izar Gorri Elkarte) eta bertatik BURUHANDIXEK urtengo die. Ondoren AIZKOLARIXEK eta HARRI- JASOTZAILEAK (Antolatzailea: Txondor Herri Kirol Taldea).

• OHARRA: Urriaren 24tik 31ra, liburutegixen, Mallabiko leku-izenen maparen erakusketa egongo da. Arratsaldero 16:00-20:00 eta urrian 29an goizez 11:00-13:00.



**san pelayo**  
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1º  
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

Pintxoak  
Razioak  
Eguneko platera 5'5€  
Menu bereziak enkarguz

**Andaluz taberna**  
Diputazioa z/g - Ermua

**DANAONA**  
IZOZTUAK ETA  
AURREKOZINATUAK

**GOIENKALE Z/G**  
ERMUA  
Tel. 943 030 112

**MERKATU PLAZA 7**  
ARRASATE  
Tel. 943 770 598

**Montis DQ Mouth**

**Udal Euskaltegia**  
Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925  
euskaltegia@udalermua.net



# Learreta eta Marquina, bikote ongilea

**Nicolas Learreta eta Josefina Marquina Mallabiko eta Berrizko eskolei izena ematen dioten senar-emazteak dira. 1970an, eskoleraikinak eta Inguruko kirol-eremuak egiteko lursailak musu-truk eman zituzten eta eskerrona erakuste aldera, Learreta-Markina deitzen dira biak. Nortzuk ziren baina?**

**H**ilabeteak ez, urteak dira bikote honen gaineko jakin-gura piztu zitzaidala eta beraien gaineko aipamenak ordutik nago baten eta gordetzen. Lilura punttu batekin begiratu diet beti, euren eskuzabaltasuna deigarri eta goraipagarri egin zait haren berri eduki nuenetik. Ez nekien jasotako informazio guztia noiz emango nuen argira; azkenean, bien omenezko izena daraman Mallabiko eskolaren 40. urteurrena aitzakiarik onena izan da.

Nicolas Learreta Acillona, Arrietako 'Etzebarri'n jaio zen 1890ko ekainaren 25ean. Nicolas Domingo Learreta Amunategui, aita, itsasontzi-kapitaina zen; ama, Juana Francisca Acillona Garay, 1902an, Acillonako markes titulua eskuratuko zuen Jose Acillonaren arreba gaztena zen. Urteetara familia Busturriara joan zen, 'Arrizuriaga-echerre' edo 'Txiton', aitaren gaitzizenagatik ezaguna den etxean biziz. Aitaren lorrazari jarraituz-edo, itsasari lotu zen Nicolas gaztea ere eta merkantzia-ontziteriko kapitain izateko ikasketak egin zituen. Itsas zabalean

baino, lehorrean egin zuen lana, Huelva eta Sevillako portuetan, bertan biziz luzaroan. Praktikoak zen lanbidez, porturatu nahi zuten itsasontzien agintea hartzen zuena, kaian behar bezala eta lekurik egokienean ertzeratzen lagunduz.


Bere emaztea izango zena, Josefina Marquina Ugarte, Mallabiko Ametzaga Jaurerian jaio zen 1889ko martxoaren 17an. Beste ahizpa bat zuen, Benita, urte bi zaharragoa eta 10 urteko anaiordea, Jorge, aitaren lehenengo ezkontzakoak. José M<sup>a</sup> Marquina Ardanza, baserriar mallabitarra alabaren jaiotza-agiriak dioskunez, Mallabiko alkate izandakoa zen. Estefana Ugarte Asuarekin ezkondu zen lehenengo eta haren ahizpaordearekin, Juana Ugarte Oruemasaga berriztarrekin geroa. Beraz, aitxitxa eta aita birritan ezkondukoak ziren. Josefina jaiotako urte bereko Gabon zahar egunean hil zen Jose M<sup>a</sup>, 35 urte egin berritan. Gizona galdu-ta, Mallabian laguntza eta loturarik ez eta Juana, umeak hartuta Berrizera bueltatu zen, eliz aurreko euren etxe ederrera. Gutxitan eto-

rriko ziren Mallabira, baina ez zuten honekin loturarik galdu: Jorge Berrizen hil arren, Mallabian lurperatu zuten, 1926ko uztailearen 26an; Josefina, aldiz, 1928ko ekainaren 9an, baitaiatu zuten Mallabiko Parrokia berean ezkonduko zen Nicolasekin.

## 'Señorak'

Dokumentuetan topatutakoaren lagungarri eta ahozkoari ere bere tartetxoak eginenez, ezagutu zituztenengana jo dugu. Mallabiko Ardantza baserrian ahaztu barik dituzte, errentero zireneko sasoiak urrun egon arren ere. 'Señora' argal-argal haiek sandaliekien eta behatzak bisitan gogoratzen ditu Jose Ra-

mon Olalde, oraindik abar-kak janzten ziren sasoiaren 'txokante' samarra haren ustez. Paraje beroagoetan bizi izandako arrastoa nonbait... Gogoan dauzka baita bertako neskameen kofiak eta haiek emandako kafesnea, urteroko errenta ordaindu eta oialasko batzuk eramatera aita-rekin joaten zenean. San Pedroetan izaten zen hori. "Oialasko pareja bi eruten jakuen, ederrak! Lehen-lehen bildotsaz juten giñen, baiña ardixek kendu zirenen, oialaskuekin" gogoratzen zuen Esteban Olalde. Errentarekin eta etxeko beste zeozer-txorekin joan beharko ziren Mallabian errentero ziren gainontzeko baserritarrak ere: Ametzaga, Boliñe, Koziñe,



Nicolas Learreta, itsasontzi kapitaina.

**KRABI**  
 Illepaindegia  
 Estetika

Tel: 943 03 17 56      Diputazio, 5      ERMUA

**J. LUCAS**  
 PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36



Josefina Marquina, Ametzaga jauregiko alaba izan zen.

Muteita, Palazio eta Zubitei. Axpe-Arrazolan, Berrizen, Elorrion eta Zaldibarren ere baserri eta ondasun ugari ziztuzten: Abeletxe, Aldekoa, Aranguren biak, Atxanitzeku, Elexosteko errota, Etxezuri, Ganekoetxe, Giputxena, Olakoa, Txirriena... Guztira hogeitik gora baserri, euren lursolo, landa eta basoekin, gehienak ama, amama eta

hauen aurretiko beste emakumeen herentzia bidez jasotakoak. Errenta ordaintzeko modu desberdinak ziztuzten lotuta eta izan zuten basoiez kargutzen zena, urtero mendiak garbitzen zituen edota negurako egurra txikitu eta ganbarara altxatu eta pilatzen zuena...

Jesus Acillonak ere ezagutu zituen. Nicolas bere

aitaren osaba izanik, gogoran du bikotea: *“Busturian etxea zuten eta hantxe ikusten nituen eta Bilbon ere sarritan. Itxura fisiko zoragarria zuten biak, dotoreak, garaiak... Jarkera ‘british’ harekin, atentzioa deitzen zuten, beti tente eta zerden. Gainera maitagarriak ziren oso!”*. Miguel Angel Caballero, historiazale busturiarrari ere haien dotorezia datorkio akordura, senarra Busturialdean ondo ikusia eta estimatua zela azpimarratuz. Ezagutu zituztenek euren harrokeria eza goraiatzan dute: abersak eta etxe onekoak bai, baina amable beti. Etxean zerbitzen zeuden langileekin, korrektoak, eta ‘señorrek’ jaten zuten janari bera sukaldatzen zen etxeko behargin guztientzako. Legatza ugazaba eta ugazaba-andrearentzat? Ba legatza gainontzekoentzat!

Ez zuten seme-alabarik izan. Erretiroa hartu ostean, Bilboko Ensantxean zuten etxean bizi izaten paratu ziren, udak Busturia eta Berrizekin partekatuz. Edadetuta hil ziren biak: Josefina Bilbon, 1972ko azaroaren 8an, 83 urte zituela eta Berrizen emanez lurra; bere senarrak 90 urteak beteak zituen zendu zen 1980ko abenduaren 5ean eta Busturian, familiak duen panteoian hilobiratu zuten.

Jorge anaia solterotan hilda, Benita Gregorio Arana diputatuarekin ezkondua, baina seme-alabarik gabekoa, Josefina beste horrenbeste... odoleko oinordeko zuzenik ezean, ondasun guztiak Opus Dei-ari laga zizkioten. Beno, guztiak esatea larregizkoa da: Mallabiko eta Berrizko eskolaume mordotxoari galdetzea besterik ez dago-eta!

Estibalitz González

# HELDUENTZAKO INGELESA

## AZKEN EGUNAK!

**Astelehen eta asteazkenetan** | **Iniziazioa (A1)**  
**19:30 - 21:00** | **Aurre-Intermediete**

**Intermediate (B1)** | **Astearte eta ostegunetan**  
**First Certificate (B2)** | **19:30 - 21:00**

**Astelehen eta asteazkenetan** | **ADVANCED**  
**18:30 - 20:00** | **(CAE)**

**Akerlei**  
 hizkuntzak

BIZKAIA ETORBIDEA, 5 Behea - ERMUA  
**943 17 66 32**  
[www.akerlei.com](http://www.akerlei.com)

# Azaroaren 9an, larunbata: Badator XXIV. San Martin Azoka!!

Azken 24 urtetan bezala, Euskal Birusak San Martin Azoka prestatzen dihardu. Gero eta ekimen gehiago, eta gero eta indar gehiago behar. Hainbat lan dago egiteko eta gurekin bat egin nahi baduzu, deitu **943 03 04 65** telefonora edo idatzi mezua **euskalbirusa@gmail.com** helbidera.

Egin beharrekoak:

- 6.00etan azokaren muntaia.
- 9.00etan plazako txosnaren muntaia.
- 15.00etatik aurrera: dena jaso eta babajanaz gozatu!! (tiketak jada salgai)

Egunean zehar:

- Errifak saldu.
- Taloen eta tiket postuetan eta txosnan txandak egin.
- Saiheskia erre...

**...animatuko zara?**



**zapatullas**

www.zapatullas.com "Eskuz margotuak"

Gainera: etxeko zapatilak, poltsak, Disney produktuak, osagarriak...

San Inazio 2. behea - ERMUA - 669731867 - zapatullas@gmail.com

**ONAINDIA HARATEGIA**

Etxean egindako odoloste eta txorizoak

Kantabria zeharbidea 1 Tel. 943 10 85 44  
48260 - ERMUA Mug. 678 64 85 41

# Zinea, musika eta antzerkia egongo dira aukeran San Martin Kulturean

**A**zaroaren 1ean ekingo zaio aurten-go San Martin Kulturearen egitaruari eta azaroaren 29a bitartean hainbat ekintzez gozatzeko aukera egongo da. 'Emaztegiaren semea' antzerkia izango da estreinako ekimena, azaroaren 1ean, 22:15ean Ermua Antzokian (sarrera 10€), Udalak antolatua. Hurrengo ostiralean, hilak 8, gazta dastaketa egingo du Lobiano Gastronomia Elkartek Lobiano Kulturegunean, 19:15ean hasita.

Azokako ajeak arintzeko, Gaztañerre eguna ospatuko da azaroaren 11n, astelehena, Kaltxango AEK-k eta Berbalagun praktika-egitasmoak antolatua. Euren ipiniko dituzte edariak eta gaztai-



nak Erretena Elkartean eta parte hartu nahi dutenek jatekoak eraman beharko dituzte 19:30etatik aurrera.

## Badira Bagara

Azaroaren 15ean bertso jaialdia burutuko da Antzokian 22:15ean Ermuko Udalak eta Euskal Birusak antolatua: Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Alaia Martin, Unai Iturriaga, Andoni Egaña eta Beñat Ugartetxea arituko dira bertan, Josu Goikoe txearen agindupean (sarrera 10€). Azaroaren 16, 17 eta 18an 'Amaren eskuak' filma ikusteko aukera egongo da zinearen ohiko ordutegian. 22an, berriz, 'Badira Bagara' dokumentala eta solasal-

dia egingo da, Nafarroan euskararen legearen inguruko egoera ezagutzera emateko asmoz. Euskal Birusak antolatuta, 19:00etan hasiko da Lobianon.

Azkenik, azaroaren 23an, larunbata, 'Nire odisea'

haur-antzerkia aurkeztuko da Antzokian 17:00etan Udalak antolatua (4€) eta 29an, ostirala, Eñaut Elorrietak kontzertua eskainiko du Antzokian 22:15ean hasita, Udalak antolatua baita ere (10€).

San Martin Kulturala

## Bertso jaialdia

Ermua Antzokian, azaroaren 15ean, 22.15ean

 Maialen Lujanbio	 Andoni Egaña
 Unai Iturriaga	 Uxue Alberdi
 Alaia Martin	 Beñat Ugartetxea

**MUGA** **KULTURAK**



San Pelaio 4A behea  
Telefonoa: 17 64 77  
ERMUA

**URRETA** burdindenda

- \* Etxea
- \* Tresneria
- \* Brikolaia
- \* Rielak
- \* Giltzak
- \* Zerrailgintza
- \* Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

OSASUNA • ESTETIKA  
EDERTASUNA

*Marfil*

*Ile-apaindegi bat bano gehiago!!*

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

*Pub Dakota*



Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com

**OINAK**

LEIRE MAYORA  
**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
© 943 17 47 44

**EMAKUMEEN  
TOPALEKUAK  
IKASTAROA  
ESKAINIKO DU**

'Ametatik alabetara: beste emakumeen herentzia berraurkitzea' izenburua du Emakumeen Topalekuak emango duen hurrengo ikastaroak. Tailer horretan norberaren herentzia femeni-noaren inguruan hausnartuko da, besteak beste, eta azaroaren 5etik abenduaren 10era bitartean burutuko da, asteartero 18:00etatik 20:00etara. Interesa dutenek Emakumeen Topalekura jo dezakete. Matrikula, 5 eurokoa izango da.

**OSASUN  
ESKUBIDEAREN  
INGURUKO  
JARDUNALDIAK**

Ermuko Nazioarteko Lankidetzeta eta Elkartasun Kontseiluak Osasun Eskubidearen inguruko sentsibilizazio jardunaldiak burutu ditu urriaren 14 eta 20a bitartean. Horren baitan, 'El jardinero fiel' filma egon da ikusgai eta Ekonomi Zientzietako irakasle emeritu Joan Roviraren 'Industria farmazeutikoa eta osasun eskubidea' hitzaldia entzuteko aukera egon da.

**Debarreneko Mankomunitateak Elkarte  
Gastronomikoetako ordezkariak deitu ditu**

Debarrena Eskualdeko Mankomunitateak 5. edukiontzia erabilera sustatzeko kanpaina abiatu berri du. Kanpainaren helburuetako bat da elkarte gastronomikoen parte hartzea lortzea, euren sortutako hondakinen ehuneko handi batek jatorri organikoa duelako, arduradunen arabera. "Gure kulturaren partaide garrantzitsuak izanik, gure gizartean birziklapena normalizatzen laguntzeko aukera daukate", diote. Horren berri emateko bilera deitu du Mankomunitateak, urriaren 28an, astelehena, 19:00etan Lobianon. Antolatzaileek elkarteetako ordezkari bat bertaratzea eskertuko lukete.

**9 taldek jokatu dute aurten APFEko txapelketa**

Urrian hasi da Ermuko futbol afizionatuaren Liga eta martxora bitartean herriko 9 talde irabazteko lehia arituko dira. Antolatzaileen arabera, iazko txapelketa, Boavista, garaipena berriro lortzen saiatuko da baina lehiakide gogorak izango ditu, tartean "iazko txapelketa-orde Drakkars Blancas CF taldeko jokalariek osatu berri den Titanic FC, Jaima Sport eta oso indartsu datorren Juventus SD taldea. Mambo FC, Los Rifeños eta Murruga FC lehen postuetarako lehia sartzeko saiatuko dira. Autobox Team eta Txupi-Txuski, ordea, azken sailkatuen artean egongo dira". Txapelketaren berri jaso nahi dutenek [www.apfe.es](http://www.apfe.es) webgunera jo dezakete eta baita 2014-2015 denboraldirako taldea osatzeko interesa dutenek ere, txapelketa osatzeko bi talderentzako lekua baitago oraindik.

**Uni Eibar-Ermuko ikasleek Izarra Center bisitatu dute**

Administrazio eta Finantzeta Goi Mailako Heziketa Zikloko 2. urteko ikasleek Ermuko Izarra Center eta enpresa hazitegia bisitatu dituzte. Ikustaldi horren helburua, sormena eta autoenplegua bultzatzea da. Horretarako Ermuko Udalak dituen azpiegiturak gertutik ezagutu eta Toki-Garapen Alorrak eskaintzen dituen zerbitzuak azaldu zaizkie.



Askotan, **konponketa** erantzun egokiena da



**AUTO-REPARACIONES  
AREITIO, S.L.**

634 errepide nazionala - 69,5 km.a Areitio Gaina 15 · 48269 - Mallabia  
Bulegoa: 943 17 51 00 / Tailerra: 943 17 08 06 / Fax: 943 17 20 15  
[www.areitiomotor.com](http://www.areitiomotor.com)  
[administracion@areitiomotor.com](mailto:administracion@areitiomotor.com) / [areitiomotor@areitiomotor.com](mailto:areitiomotor@areitiomotor.com)

**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2  
Tel. 943 17 66 34  
Tel. mugikorra 630 01 13 41  
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60  
48260 ERMUA (Bizkaia)

**uriarte asesores** ✓

**Aholkularitza fiskala  
eta lege aholkularitza**

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197  
48260 · Ermua · Bizkaia



Zubiaurre 14  
Telef. 943 17 28 88  
48260 ERMUA

**EGUZKI LORE**

## Postal lehiaketaren sariak banatu dira



Koldo Aranberriak irabazi du aurtengo postal lehiaketaren lehen saria, Alemaniatic bidalitako postalari esker; Vanessa Rodríguezek eta Mikel Arrillagak bigarrena lortu dute, Errumanian ibili eta gero, eta Estibalitz Gonzálezek hirugarrena eskuratu du, Pontevedratik etorritako postalari esker. Epaimahaiaren arabera, Aranberriak "bost zentzumenak erabili ditu bizitakoaren deskripzio bikainak egiteko, ikusitakoak kontatuz". Rodríguezek eta Arrillagak bertsoa erabili dute

Errumanian bizitakoak kontatzeko eta "labur bezain sakon eta polita bezain alaia" izan da euren kontutakoa. Azkenik, Estibalitzek "hizkera goxoarekin" Pontevedran pasatutako egunen deskribapena modu arin eta atseginez egin du. Umeen kategorian, lehen saria June Aranberriak jaso du Alemaniatic bidalitako postalari esker; bigarrena Esther Molinerok eskuratu du, Tarragonatik idatzitakoa tarte, eta hirugarrena, berriz, Aimar Gutierrezek bidali du Comillasetik.

## 'Aitor Hernández Team' sortu eta lanari ekin dio



Aitor Hernández txirrindulari ermuarrak ziklo-kros taldea sortu du 2013/2014 denboraldiari aurre egiteko. Izarra Centerren burutu zen aurkezpenean azaldu zuenez, esfortzu eta dedikazio osoarekin erantzungo dio lagun, senide, babesle eta instituzioek emandako laguntzari, emaitzarik onenak lortuz. Espainiako txapela irabazi eta gero, nazioartean bere lekua topatzeko helburua du ermuarrak orain, munduko onenekin lehiatuz eta ikasiz. Izan ere, denboraldia ezin hobeto hasi du Hernándezek, Oviedon jokaturako Federazio Koparen lehen lasterketan garaipena lortu zuelako urriaren hasieran, Ruiz de Larrinaga eta Tino Zaballari minutu bateko aldea atera eta gero. Kopako hurrengo lasterketa azaroaren 2an egingo da, Laudion, baina bitartean ermuarra bestelako probetan arituko da. Horren adierazle, astebete beranduago Llaneseko III. Ziklo-krosean lortutako garaipena da. Bakarrik heldu zen helmugara ermuarra orduan ere, Kevin Suárez eta Erlantz Uriarteri irabazita.

Horren adierazle, astebete beranduago Llaneseko III. Ziklo-krosean lortutako garaipena da. Bakarrik heldu zen helmugara ermuarra orduan ere, Kevin Suárez eta Erlantz Uriarteri irabazita.

## Euskal Birusak parte hartu du euskaltzaleen elkarten mugimenduaren egunean, TopaEgunean



Ehunka euskaltzale bildu zen II. TopaEgunean, Soraluzen. Deba bailarako euskara elkarteek (tartean Euskal Birusak) eta Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta, euskara elkarten balioa ospatzea izan zuen helburu, mugimendu sozial moduan duten eragina erakusteko. Goizetik ekin zitzaion jai-egitarauari eta bertan Euskal Biruseko bazkide eta talogileak, Antxixiketan taldeko gazteak eta hainbat ermuar bildu ziren.

## GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETZEKO INKESTA

Gipuzkoako Foru Aldundiak parte-hartze prozesua antolatu du garraio kolektiboko erabiltzaile direnen balorazio eta beharrak ezagutzeko xedez. Kanpaina horretan parte hartu nahi dutenek, inkesta bete beharko dute urriaren 30a baino lehen ([www.garraioahobetzen.com](http://www.garraioahobetzen.com) webgunean edota Abiapuntun). Galdetegia betezen duten guztien artean zozketa egingo da: Mugi eta Lurraldebus txartelak kargatzeko 20 euroko bonoak zozketatuko dira.

## URRIAREN 23AN BANATUKO DA 'GURE BALIOAK' SARIA

Debegesa Garapen Agentziak antolatuta, gizarte balioen arloan nabarmendu den eskualdeko pertsona edo entitatea aitortzea eta saritzea du helburu sari honek. Aurten IV. edizioa bete du eta sari banaketa urriaren 23an egingo da, Debako Agirre Jauregiko Ispiluen Gelan, 18:30etik aurrera. Ekitaldi irekia izango da eta herritarrek bertan parte hartzeko aukera izango dute, baina alde aurretik izena ematea ezinbestekoa da (943 820 110 telefonora deituz edo [balioak@debegesa.com](mailto:balioak@debegesa.com) helbidera idatziz). Ekitaldiaren baitan, iaz zendu zen Txema Cornago eibartarrari omenaldia egingo zaio. Bestalde, Jon Leonardo Aurtentxeren hitzaldia eta Teresa Albero sopranoa entzuteko aukera egingo da.

**Proba-Leku**  
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

**PUB YOMY**

Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean

Komunitateak

**San Pelayo**

Aholkularitza  
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

# Euskaldun zaharrek hiru hilabetez hartuko dute parte Berbalagunen

Laster abiatuko da Berbalagun praktika-egitasmoaren XII. edizioa eta antolatzaileek hainbat berrikuntza prestatu dituzte. Tartean euskaldun zaharrei eskatuko zaien konpromisoa aldatuko da, ikasturte osoko parte-hartzea eskatu beharrean 3 hilabetez bakarrik aritzeko aukera eskainiko zaielako. Gainera, gazteak erakartzeko ekimenak burutuko dira.

Euskara praktikatzea eta kalean gehiago erabiltzeko helburua du Berbalagunek. Hori lortzeko euskaldun berri, euskara ikasle zein euskaldun zaharren esku-hartzea ezinbestekoa da, hauek guztiak taldeka banatu eta astean ordubetez euskaraz mintzatzeko aukera baitute.

Proiektuko arduradun Juanmi Bravoren arabera, azken urteotan euskaldun zaharren kopurua txikitzen joan da. "Egun, ia ez dugu jenderik talde bakoitzean euskaldun oso bat jartzeko. Jakina, praktikatzeko beharra dutenentzat, hau da, euskara ikasle eta hainbat euskaldun berritentzat, ezinbestekoa da euskara naturaltasunez erabiltzen duen jendea entzutea, ondoan izatea, eta haiekin berba egitea gutxienez astean behin", azpimarratzen

du. Horregatik, antolatzaileek 9 hilabeteko konpromisoa eskatu beharrean, 3 hilabetekoa eskatuko diete aurten euskaldun zaharrei, hau da, ordubetez 12 saio; epea bukatutakoan, taldearekiko konpromisoa bukatuta egongo litzateke, nahi izanez gero.

Edizio honen berrikuntzen artean euskaldun gazteak proiektura erakartzeko asmoa ere badago, gazteek Berbalaguni egin diezaioketen ekarpena jakinaraziz. Helburu horrekin Ermuko Gazte Asanbladako kideekin bilera egin eta elkarlanean ekintzaren bat antolatzea proposatuko zaie gazteei.

## Bakarrizketa komikoa

Gurasolagun egitasmoa indartzea aurtengo beste erronketako bat da, gaur



+

## euskaldun zaharrak

=

## Elkarrekin 3 hilabetez

egun Ongarai eskolan baino ez delako gauzatzen. "Honek berebiziko garrantzia du, guraso eta umeen arteko transmisioa bermatzen duelako eta herriko beste esparruetara zabaldu nahiko genuke", dio Bravok. Horretarako, haurtzaindegiko arduradunekin elkartu eta bertako gurasoekin bilera egiteko asmoa dute.

Horrez gain, herriko eragileekin elkarlana sustatu, partaide kopurua handitu, taldeen funtzionamendua hobetu eta ekintzen kopurua eta kalitatea handitzeko asmoa dago, besteak beste.

XII. edizio honetan parte hartu nahi dutenek urriaren 24a baino lehen eman behar dute izena Kaltxango AEK euskaltegian, 943 171 940 eta 639 414 205 telefonoetan edo [ermua\\_berba@aeek.org](mailto:ermua_berba@aeek.org) helbidean. Aurkezpen ekitaldia, ordea, izena emateko epea baino egun bat lehenago burutuko da, hilaren 23an, Lobianon. Bertan, Irlandatik etorri den Barry Mailey umore-egilearen 'Irish in Euskal Herria' bakarrizketa komikoa entzuteko aukera egongo da.

Dorleta Vidal



**Igeltserotza - Iturgintza**

**Errekalde**

Esteban Goikoetxea

Errekalde baserria, 1  
48260 ERMUA Bizkaia  
Tel: 662 51 42 68  
[errekalde.gm@gmail.com](mailto:errekalde.gm@gmail.com)



**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoiaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • [albokamusikaeskola@hotmail.com](mailto:albokamusikaeskola@hotmail.com)

**Pub SCORPIO**



Zubiaurre, 21  
**ERMUA**

**OUTUMURO**

**Kafetegia**

Kafe eta tarta bereziak  
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

*Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu*



# MAITE MORENO

- **Nola oroitzen duzu gaztaroa?**

Auzoan jolasten genuen inguruko umeok eta domekan mendira joaten ginen.

- **Ikasketarik?**

Oinarrizkoena ikasi dut, baina kurtso ezberdinak egin ditut erakusleioak apaintzearen gainekoak, espozizio kurtsoak... Eta harakina izateko beharrezko prestaketa jaso nuen Irun eta Elgoibarren.

- **Zein izan zen zure lehenengo lana?**

Familiaren iturgindegian jardun nuen aurrenekoz.

- **Etapari berri baten aurrerian zaude...**

Merkatu Plazan oso gustura egon nintzen, baina etorkizunik ez zuenez, handik irten eta merkatu ondora etorri naiz. Kale honetatik jende asko pasatzen da eta hori onuragarria da negoziarako.

- **Zuk zeuk dekoratu duzu zabaldu berri duzun dendara...**

Bai, modak eta dekorazioak asko erakartzen nauelako. Gainera, barne dekorazioak egiteko aholku eske etorri zaizkit. Beharbada ofizios aldatu beharko dut... (barre artean).

- **Zein ordutan hasten zara lanean?**

Goizeko 7:15ean etortzen naiz dendara eta produktuak manipulatzeko ditut, behar bezala kokatzeko ditut...

- **Zer da zure lanetik gehien estimatzen duzuna?**



**Zornotzan jaio zen Maite Moreno Ezpeleta. Hiru anai-arreben artean bera da zaharrena. Duela 29 urte ezkondu zen Jose Rivasekin, eta ondoren Ermura etorri eta 'Mayte' deritzon gourmet denda zabaldu zuten. Yaiza izeneko alaba du eta 15 urte daramatzate Mallabian bizitzen.**

Publikoarekiko kontaktua asko preziatzen dut. Bezeroak dendatik irribarrez irteak pertsonalki asebetetzen nau.

- **Zer da gehien saltzen dena?**

Urdaiazpikoa. Fabrikako produktua zuzenean dator dendara, eta kontsumitzaileek kalitatezko produktuak lor ditzakete. Gainera, gizartea asko aldatu da eta jendeak jaten duenari erreparatzen dio.

- **Pertsonala handitu duzuna...**

Soraya Ruiz de Loizagak 6 urte daramatza gurekin eta Ander Blanco duela hilabete gutxi hasi zen. Oso garrantzitsua da gazteei aukera bat ematea, komertzioari berritasuna erantzen diolako.

- **Nola lasaitzen duzu zure burua?**

Dendaz denda erosketak eginez. Estresaren aurkako erremediorik hobereena da! Gainera tendentzia berriak ikus ditzakezu.

- **Biziorik?**

Sukaldatzea.

- **Musika estilo bat...**

Denetarik entzuten dut Cadena 100 irratan.

- **Nora bidaiatuko zenuke?**

Benidorm, Italia edo Greziara.

- **Amets bat...**

Herritar orok lana edukitzea, horrek komertzioa pizten duelako.

- **Zein da definitzen zaituen kolorea?**

Beltza, gorria ... Kolore ilunak bereziki.

- **Jateko gogokorik?**

Arrautza eta patata frijituak.

- **Zer eragiten dizu barrea?**

Azkar barre egiten duen horietakoa naiz ni, edozerk eragiten dit barrea.

- **Urduritzen al zaitu zerbaitek?**

Ingurukoak gaixotzen direnean.

- **Nola definituko zenuke zure burua?**

Oso kontrolatzailea, ordenatua eta zorrotza naiz.

- **Zer miresten duzu pertsona batengan?**

Gardentasuna eta zintzotasuna.

- **Zein izan zen bizitzako egunik zoriontsuena?**

Yaiza jaio zenean.

- **Euskara...**

Ultritzen dut baina gutxi hitz egiten dut. Gurasoak bilbotarrak dira baina, gerra zela-eta, ez ziguten seme-alaboi erakutsi.

- **Bizitzak zer irakatsi dizu?**

Pazientzia edukitzea.

Leire Elustondo



**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, 18 pab.  
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14



**SAGARDUI**  
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK



**EGANA**

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK  
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA  
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

## Bat garelako azken batean...

**K**ezkatzen nau zein gizarte eredu utzi nahi diegun gure txikiei, etorkizunean gure gizartearen erantzunkizuna hartuko dutenei.

Gizartea hotza sentitzen dut. Egun deshumanizazioan oinarritutako balio krisiak kezkatzen nau gehien. Orain urte dexente, dirua bihurtu 'genuen' lehenetasun eta, aparientziak itsututa, askok printzipio humanoenak ere galdu dituzte. Berdin izan zaie nola eta noren kontu aritu. Ondoan daukagunari zer gertatzen zaion sentitzeko ahalmena amatatu zaigu. Izateari eta sentitzeari utzi ote diogu. Beldurraren kultura irensen eta elikatzen ari gara eta, kirkilduta, ustez autodefentsarako propio eraikitako oskol ahuletan ixten hasi da jendea.

Kontzienteki zertan ari garen ohartzen ez garenean, krisiak agertzen dira. Aldaketak egiteko balio dute. Aukera dira eta, konaturatzen hasiak gara uste dudaren arren, egiteko asko dugu oraindik.

Orain sei urte niri gertatu zitzaidan. Itzali egin nintzen. Ustean dena ondo zegoela ematen zuen, familia, adiskideak, lana, denak nirekin ziren. Garrantzitsuena falta zitzaidan, hala ere. Naizenaren eta biziaren zentzua berreskuratzea. Nirekin modu autentikoagoan batzeak inguruarekin ere modu benetazkoagoan eta ardurasuagoan harremantzea ahalbidetu zuen. Besteari eta norberari gertatzen zaionak denoi ere eragiten digulako aldi berean.

Karmele Jaiok dioenaren harira, "...bizitza ez da bakarrik arnasa



*Ainara Riveras*

hartzea, edo jan eta lo egitea; bizitza geu gara eta geure jarrerak, eta gure eguneroko harremanak, eta gure izaera...". Bat nator berarekin. Niretzat bizitzaren zentzua norberari, sustraiei, inguruan ditugunei eta hartzen gaituen lurrari diogun maitasunean hasten da. Denona eta egunerokoa da bestearekin batera eta denon ongizatean oinarritutako gizarte irekiagoa sortzeko dugun erantzunkizuna.

Gure hurrak gure eguneroko ereduaren oinordekoak izango dira. Egin dezagun gugatik, beraiengatik, lurrugatik, finean, biziaren berez den horrexegatik.



**Ondoan daukagunari zer gertatzen zaion sentitzeko ahalmena amatatu zaigu**




**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



**Enter**  
**INFORMÁTICA**

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
 Tel. 943 17 90 37  
 e-maila: enter-i@arrakis.es



**NEREA IÑIGUEZ**  
**HORTZ KLINIKA**



San Inazio 4 - Ermua  
 943 030 512 / niklinika@gmail.com

**solozabal**  
**tabakoak**

torrekua 1  
 tel./fax: 943 17 07 33




**Ardo banatzailea:**  
 Luis Cañas  
 Cantosan Verdejo  
 Viña 65 Verdejo  
 Amaren  
 Añada Real  
 Cava Oriol Rosell  
 Nitida  
 Montepinos

**D. ARRAL 97 S.L.**  
 Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892  
 arral@arral97.com  
 www.arral97.com

## LAN BILA

Mutil arduratsuak bere burua eskaintzen du edozein lan egiteko: etxeko lanak, tailerrak, banaketak, gidari lanak...  
© 631429711. Andrés.

Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko.  
© 672 076 852



Zorionak Txapeldun! Ondo pasa zure 10. urtebetetzea zure familiaren partez.



Azaroaren 12an (Mikel) eta azaroaren 25ean (Olatz) Zorionak. Oso ondo pasa eta muxu handi bat zuen familiaren partez.

### Babajanerako tiketak Elexosten eta telefonoz egongo dira salgai

Aspaldiko partez, Babajana antolatuko du Euskal Birusa Elkarreak San Martin azoka egunean. Tiketak alde aurretik salduko dira elkarrearen egoitzan, Erdikokale 2-1. solairuan, eta baita telefonoz ere (943030465 / 688632874), urriaren 21ean hasita. Babajana plazan egingo da (Merkatu Plazan euria eginez gero) eta 15 euroko prezioa izango du, 12 euro Euskal Birusaren bazkideentzat. Prezio horren truke, babak, postrea, kafea eta edaria jasoko da.



Urriaren 31n (Maren) eta urriaren 30ean (Leire) Zorionak eta patxo handi bat etxekoan partez.




Urriaren 29an Zorionak Mikel zure 6. urtebetetzean. Ondo pasa eta musu handi bat etxekoan partez!!!

**Hurrengo  
zenbakirako  
azken eguna:  
AZAROAREN 15a**

### Agustiñe Agirregomezkorta

Urriaren 10ean hil zen,  
93 urte zituela

*Gure atsekabea eta  
elkartasuna adierazi  
nahi dizkiegu haren  
senide eta lagunel.*



Euskal Birusa



**TXINDURRI  
TALDEA  
Tokian  
tokiko**

**PRO**



- ARRAINDEGIA  
- ITSASKIAK  
- ARRAIN FRESKOAK ETA  
IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA  
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
" 17 24 33 (etxea)  
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
ERMUA

**Infreñu  
Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
www.infretaberna.com



**mari  
asun**  
LORADENDA



Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

**MALLABIA  
1954**

Argazki hau 1954 ingurukoa da. Abadeetxea deitzen zan etxe aurrien aterata dago. Urte batzuk badira bota zutela. Kultur etxian gainekaldian dagoen etxian sala bat omen zeuen eta bertan dantza eta kantuan egiten omen zan. Argazkian agertzen diran neskek 'La espigadora' kantatu zuten.

Bertan agertzen direnak: Mari Luz Asumendi, Mari Tere Astarloa, Begoña Markina, Brigida Pradera, Rosa Mari Arregi, Paz Pradera, Mari Carmen Mallabiabarrena, Rosita Aranzeta, Marite Biritxinaga, Mari Sol Aranzeta eta Maria Pilar Areitioaurtena.

**ERMUA  
1955**

Ramón Arizmendi, José Mari Ceballos, Tomás Gorritxategi eta José Antonio San Martín. Madrilen astebete eman zuten, Peugeot 205 batekin joanda eta poltsikoan 1.000 pza. besterik ez zutela, luzaroan eta apurka-apurka, ogerlekoka aurreratutakoak.

Dani Solozabal 'Recoletos' frontoian profesional modura zegoen jokatzeko eta haretxeri bisitatxo bat egiteko aitzakiarekin bertaratu ziren.

Zure argazki zaharrak atal honetan argitaratu nahi badituzu, ekarri Elexostera (Erdikokale 2, 1) edo deitu 943 17 93 50 telefonora. Argazkiek 25 urte izan beharko dituzte gutxienez eta momentuan eramango dituzu bueltan. \*

**MENDIOLA**  
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19  
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA  
(Bizkaia)

**Quetzal**

[arropa, bitxiak, opariak...]

berria!!

ekainetik aurrera  
**Eibarren** ere

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA 943170065  
Zuloagatarren, 7 • 20600 EIBAR 943531500

**Urriko azken asteburuan ordua aldatu beharko da. Goizeko 3.00etan 2.00ak izango dira eta, horren eraginez, goizago argituko du egunak eta goizago ilundu arratsaldetan. 80 bat herrialdetan egiten da ordu aldaketa urtero birritan, energia aurrezteko xedearekin.**

**Ordu aldaketarekin energia aurrezten dela uste duzu?  
Aldaketa horrek zure gorputzean eraginik al du?**



Ez dakit benetan aurrezten den edo ez eta, zerbait aurreztekotan, ez digute ondo azaltzen. Jendeak ez daki zergatik aldatu behar duen ordua, ezta zer lortzen den ere. Bestalde, nik ez dut aldaketarik sumatzen, baina neskalagunarengan eragin handia du aldaketak.

**Rubén García, 29 urte**



Ez dut uste ezer aurrezten denik: goizean erabiltzen ez duzun argindarra, gauean erabili behar duzulako, beraz... Fisikoki ere ez dut ezer igartzen, beti daukat logura-eta!

**Amaia Kapanaga, 47 urte**



Gaizki iruditzen zait ordua aldatu behar izatea, gorputza eta eguneko erritmoa guztiz desorekatzen duelako eta ez delako energia aurrezten. Gainera, arratsaldetan goizago iluntzeak tristura eta moteltasuna ekartzen du.

**Maribel González, 50 urte**



Aldaketa horrek ikaragarri harritzen nau eta ez diot aurrezpenik ikusten. Gainera, biologikoki asko igartzen dut eta kentzen diguten ordu hori asko kostatzen zait berriro berreskuratzea.

**Jose Mari Marcos, 57 urte**



- Laster ordua aldatuko dute, elektrizitatea aurrezteko dela diote!



**Tasio eta Sabino**

Bai! Gero faktura igotzen digute eta listo!

**ZINEA**

**2tik 4ra**  
**9tik 11ra**  
**16tik 18ra**  
**23tik 25era**  
**30etik 2ra**  
 Zehaztu gabeko filmak.  
 Hainbat ordutegi.  
 Ermua Antzokian.

**ZINE-KLUBA**

**Hilak 7**  
**Hilak 14**  
**Hilak 21**  
**Hilak 28**  
 Zehaztu gabeko filmak.  
 20:30ean. Antzokian.

**UMEENTZAKO ZINEA**

**Hilak 3**  
**Hilak 10**  
**Hilak 17**  
**Hilak 24**  
 Zehaztu gabeko filmak.  
 17:00etan. Antzokian.

**MUSIKA**

**Hilak 11:**  
 Kontzertua: 'Con Cierito Desconcierto'.  
 L'Empordako Kamara Orkestra. 22:15ean.  
 Antzokian. Sarrera: 10€

**Hilak 16:**  
 Blues Kontzertua:  
 Txues Blues eta Jose Bluesfingers. 20:00etan.  
 Lobianon. Sarrera: 8€

**Hilak 21:**  
 Zezilia Deunaren Kalejira. 18:00etan.

**Hilak 22:**  
 Zezilia Deunaren diana: Irulitxa txarangaren eskutik. 7:30etan.

**Hilak 22:**  
 Zezilia Deunaren jaialdia: Alboka Musika eskolako ikasleak eta Txindurri taldea. 22:00etan. Elizan.

**Hilak 23:**  
 Folk Kontzertua: Luis A. Pedraza. 20:00etan. Lobianon.

**Hilak 29:**  
 Kontzertua: Eñaut Elorrieta. 22:15ean.  
 Antzokian. Sarrera: 10€

**Hilak 30:**  
 Kalejira: Ermuan kantuan. 12:30ean.  
 Plazatik irtenda.

**Hilak 8:**  
 'Desclasificados'.  
 22:15ean. Antzokian.  
 Sarrera: 15€

**Hilak 30: Antzerkia:**  
 'Historia de una escalera'. Sutegi antzerki taldea. 17:00etan. Antzokian.

**ERAKUSKETAK**

**Hilaren 3ra arte:**  
 Argazkiak: Mikologiari buruzko lehiaketara aurkeztutako lanak.

**Hilaren 4tik 10era:**  
 Argazkiak: '2013ko oporrak' lehiaketara aurkeztutako lanak.

**Hilaren 12tik 24ra:**  
 Ertibil-Bizkaia: Bizkaiko artista gazteak. 18:00etatik 20:00etara.  
 Lobiano Kultur Gunean.

**UMEENTZAKO IKUSKIZUNAK**

**Hilak 16:**  
 Ipuin-kontaketa. 17:30ean. Liburutegian.

**Hilak 23:**  
 Haurrentzako antzerkia: 'Nire odisea', Paraiso Antzerkiaren eskutik. 17:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 4€

**BESTELAKOAK**

**Hilak 9:**  
 San Martin nekazal azoka: hainbat ekitaldi. 11:00etatik aurrera.  
 Orbe Kardinalaren plazan eta inguruko guneetan.

**Hilak 11:**  
 Gaztañerre: hainbat ekitaldi.

**Hilak 15:**  
 Bertso jaialdia: Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Alaia Martin, Unai Iturriaga, Andoni Egaña eta Beñat Ugartetxea. Gai jartzaila: Josu Goikoetxea. 22:15ean.  
 Antzokian. Sarrera: 10€


**Hilak 16:**  
 Magostos: Gaztainen banaketa eta musika giroa. 11:00etatik.  
 Galiziako Zentroan.

**Hilaren 18tik 24ra:**  
 Andaluziako zentruaren kultur astea: hainbat ekitaldi. Andaluziako Kultur Zentroan.

**Hilak 26:**  
 Diaporama: 'El mundo en bicicleta'. Andoni eta Alice-ren eskutik. 19:00etan. Lobiano Kultur Gunean.

Patxi López

hamburguesería  
**TITANIK**



*Pintxo dastaketa poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



optika  
**ITZE**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
 ✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

**ILEAPAINDEGIA**

*Traskun*

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)  
 48260 Ermua Bizkaia  
 Tel. 943.17 66 90

**ILEAPAINDEGIA**

**ARRIETA CORDEVI**

Elektratresnak,  
 telebistak, bideoak,  
 musika aparatuak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

**T**XALAPARTA  
 ABERNA

**Et**a asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**Erdikokale 13 (Ermua)** **ENKARGYAK 943 030 299**

Ermuan, Euskal Birusa Elkarteak antolatua,

# XIV. SAN MARTIN AZOKA



AZAROAREN 9AN  
LARUNBATA



**11:00**

- Azoka jendearentzat zabalduko da.
- Kalejira Musika Eskolako trikitilari eta txistulari gazteekin.
- Kalejira Arrasateko gaiteroekin.
- 'KULKI' rekin umeentzako jolasak eta ikastetxeetako postuak San Martin plazan.
- Ehun buruko artaldearen jaitsiera Errekaldetik Baldespina.
- Abere erakusketa Baldespina parkean.
- Idi parek Probalekun.
- Artisauen postuak Santiago plazan.
- 'Astobusa'.

**10:00-12:30**

- Euskal musika tresnen erakusketa Lobianon. Eskolabarrik antolatua.

**11:00-14:00**

- Ze pisu du aurtengo txerriak? Apustua euro 1. Saria: jasotakoaren %70a. Pisua 14:00etan argituko da.

**12:00**

- Baserritar jantzi lehiaketa plazan. 12:00ak eta 12:30ak bitartean aurkeztu. Saria: bi pertsonentzako afari bana.

**12:00-14:00**

- Haurrentzako eskulanak Komentukuan. Eremu akademiaren eskutik.

**12:30**

- Euskal dantzak plazan: Txindurri txistu eta dantza taldea.

**13:00**

- Erakuslehi lehiaketako sari banaketa.

**15:00**

- Babajana. Babak, postrea, kafea eta edaria. 15 euro, bazkideak 12. Tiketak Elexosten eta 943030465/688632874 telefonoetan salgai.

**18:00**

- Erromeria 'LUHARTZ' taldearekin Orbe plazan.
- Pilota partida Aritzmendiko frontoian.

**19:00**

- Kalejira Arrasateko gaiteroekin.

**19:30**

- Errifa zozketa Orbe plazan.
- Larrindantza Orbe plazan.

ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEA:





# UDA GOIENENKO OSTERA

## EÑAUT ELORRIETA

DESERRIKO KANTAK



**ERMUA,**  
LOBIANO KULTUR GUNEA

Azaroaren 29an, barikua, 22:15ean  
Sarrera: 10 €



**GABRIEL  
ARESTI  
BIZITAN**

**OSKORRI**  
GABRIEL ARESTI BIZITAN

**ZALLA,**  
ZINE ANTZOKIA

Azaroaren 16an, zapatua,  
20:00etan  
Sarrera: 8 €



**GATIBU**  
ZAZPI KANTOIETAN

**BILBO,**  
KAFE ANTZOKIA

Azaroaren 22an, barikua,  
22:00etan  
Sarrera: aurretik 12 €, bertan 15 €



**GABRIELEN  
LEKUA**

**BERMEO,**  
KAFE ANTZOKIA

Azaroaren 28an, eguna,  
20:00etan  
Sarrera: 6 €



**BENITO  
LERTXUNDI**  
OROIMENAREN ORAINA

**BASAURI,**  
SOCIAL ANTZOKIA

Azaroaren 29an, barikua,  
20:30ean  
Sarrera: 18 €

Antolatzaileak:



Babeslea:



Laguntzaileak:

berria

GARA

Deia

TOKIKOM



Sarrerren salmenta:



Sarrerren salmenta:  
www.kutxabank.es

